



◦ DEABRUAREN ABOKATUA ◦

“Internet urdaiazpikorako labana bezalakoa da”

Aurora Beltrán | Musikaria

Laster *Clases de baile* bakarkako lehen diskoa argitaratuko du, Tahúres Zurdos desegin zuenetik bost urtera.

FERMIN ETXEGOIEN
Argazkia: Juanma Aparicio

Egia da hamahiru urterekin *Muerte ven* idatzi zenuela, zure lehen kanta?

Txikiago nintzela hasi nintzen kantuak konposatzen, baina *Muerte ven* deigarria da, urte batzuk geroago Tahúres-en lehen diskoan agertu zelako.

Hogeita hamar urte pasa ostean, biraka zabiltza Rosendo eta Barricadarekin. Makrobiotikoak baldin bazarete, ez dut jakin nahi!

Ez gara makrobiotikoak, baina geure burua noraino zaintzen dugun jakingo bazenu harritu-ko zinateke. Sexu, drogak eta rock´n´roll hirukotetik –berez kondaira besterik ez zena– hirugarrena baino ez zaigu gelditzen. Lehengo egunean, Hospitaletetik gentozela, espinakak eta arraintxoak jan genituen, kar kar kar!

Zer da heldutasuna rock-ean?

Ideiarik ere ez... Guri agure edo atso deitzeko modu atsegina ez bada! Halere jakitun naiz hortik zehar eman ditugun urteak, Jainko zein Deabruaren konpainian, ez direla alferrik igaro.

Hain zuzen ere, ez dakit ezer zure bizitza pribatuaz!

Eta ez dut uste inork jakiterik beharrezkoa denik. Ezagutzen dituzun gainerako pertsonen bizimoduaren oso antzekoa da. Dena oso arrunta.

Mesedez... zu bezalako *rock star* baten tamainako pasadizoren bat kontatu!

Ni bezalako zer? Ez ba, ez naiz *rock star*-a. Gainera, errepideko kontuak... errepidekoentzat. Kuxuxero halakoa!

Iruñean jaio, Potasas herrian hazi eta Usi herritxoan bizi. Nafarroa berdin ikusten al da bazter guztietatik? Usi herritik dena oso berde ikusten da, baina hegoaldera eginez gero bestelako paisaiak aurkituko dituzu, baita oso interesgarriak ere. Badakizu, Nafarroa oso handia da.

Arestikoak galdera “politikoa” izan nahi zuen... Baina ahaztu dut zer galdetu nahi nizun. Euzkadi... Nafarroa da! Kar kar kar.

Disko berriari *Clases de baile* jarri diozu eta azalean dantzari lirain baten itxuraz ageri zara. Heavy-aren alderantzizkoa!

Tira, lirain-liraina... Lurrean eserita nagoenez horrelako zerbait eman nezake, kar kar kar. Guapa nago, ezta?!

Internetek musika izarra hil ote zuen?

Internet urdaiazpikorako labana bezalakoa da. Ongi erabiliz gero “jabugo” ederra lortuko duzu. Baina labana bestela erabil daiteke... Ez nuke demagogia egin nahi. Tresna ederra, ongi erabiliz gero.

Lasai egin demagogia!

Interneten oso gauza zatarrak egin daitezke. Anonimatua baliatzen duen jende maltzur askoren paradisu da. Pederastak, iruzur egileak...

Aizu, biziki maite dut Belladona taldearen lehen disko hura. Zuri ere oroitzapen onik ekartzen dizu? Oroitzapen on, bakar eta ezin ederragoak. Euskal rock-ak bizi zuen aro bikaina dakarkit gogora. ■